

LORE JOKOAK ARAMAION
1899 - 1999

Pozgarria izaten dau edonork bere jaioterrria goratua ikustea. Horrela jazo jat niri be. Egia esan, hainbeste maite dodan nire jaioterrria, Aramaio, hor eta hemen komunikabideetan behin eta berrero goratzen ikusteak pozez gainezka jarri nau.

Banekian bai, ondotxo jakin be, merezi ebala gure herriak euskaldunen artean ezagutua izatea. Zoragarria dogu, izan bere, mendiz inguratuta Araba-Bizkaia-Gipuzkoa besarkatzen dituen haran hau!

Berau izan dogu, gainera, arbasoengandik jasotako bidetik eginez euskarari gogotsu eutsi deutson Arabako udalerrri bakarra. Araban euskara ia guztiz galtzera heldu zan garaietan bere, gogor jarraitu eban Aramaiok euskara eguneroko bizitzan erabilten. Oraindik bizi-bizirik dihardu bertan euskarak bertako bizilagunen %84,94a euskaldun delarik.

Ni txikia nintzanean, Erdi Aroko giro batean bizi ginan, euskarari dagokionean, batez bere auzoetan. Gure artean ez jakon inori burura etorten erdara egiterik. Jakin bere, nahiko gutxi genkian; eskolan ikasitako apurra baino ez. Baegoan, halan da bere, soldadutzan edo neskame-lanetan erdara gehiago ikasitakorik.

Euskara hutsezko giro horretan bizi izandakoak arduraz ikusi izan dogu Aramaioko euskararen ibilbidea. Batez bere eskolaren eraginez edota guraso ardurabako batzuen erruz umeen artean atzeraka hasi zanean. Horrek ekarri eban ahalegin handiak eginez ikastola martxan jarri eta urteetan zehar aurrera eroatea.



Aramaioko Ibarra 1930ean.

Geroago, eskoletan euskara normaltasunez erabilten hasi ostean, eta hainbatean Arrasateko fabrika eta ikastetxeetako euskal giroak bultzatuz, egoerak onera egin daukagu ikusi izan dogu. SIADEKOK egin barri dauan hizkuntz-azterketan pozik egoteko datuak ageri jakuz, ez, ostera, lotan egotekoak, oraindino zer egin ugari daukagu eta. Aramaioko udala UEMAn sartzea bere aurrerabide izan daiteke euskara indartzeko.

Ez da harritzekoa, bada, orain dala ehun urte, herria orain baino oraindino euskaldunagoa zanean, Arabako udal honek "Lore Jokoak" ospatzeko egin eutsoen deiari baiezkoa emotea. Orain, mendeurrena gogora ekarritz, barriro egin gura izan dira, eta horrek oihartzun handia izan dau Euskal Herri osoan zehar.

Gorago esan dodan legez, benetako poza sortu deust bihoztzaren sakonean, irailean zehar Aramaion egin diren "Lore Jokoak" zirala eta, komunikabideetan gure herria hain sarri aitatu eta goratua ikusteak.

1899ko Lore Jokoak (irailak 10 eta 11)

Esan dodan legez, aramaiorrek orain dala ehun urte ospatu zituen lehenengoz Lore Jokoak. Orduko ospakizunak bere nahiko oihartzun izan eben Euskal Herrian zehar, hainbat lekutako idazleek parte hartu eben olerki-lehiaketan eta. Zelan izan ete eben horren barri? Aldizkarien bidez. Horrela izan zala emoten dau itxura batean, bertan saritutako olerkien barri *Euskarazalea* eta *Euskal Herria* aldizkarietan ageri da eta.

Aurtengo ospakizuna gertatzeko Eusko Ikaskuntzak eta Aramaioko udalak argitaratutako liburuxkan (*Lankidetzan bilduma*, 13. zk., Bilbo-1999) honako hau irakurri daikegu orain dala ehun urte ospatu ziran jokoei buruz:

"Lore Jokoei buruz dokumentazioan agertzen diren aztar-nak ugariak dira. Hauek Udalbatzaren Akta batzuetan, liburute-gi ezberdinetan bildutako eskutitzetan eta garaiko aldizkari artikuluetan sakabanatuta daude. Maiz aipatzen dira Aramaioko semea den Bixente Goikoetxeari, musika sakraren konpositore eta berritzaile ospetsuari eskainitako artikuluetan ere.

Lore Jokoak edo Euskal Jaiak gero ezagutu izan diren bezala, Antoine d'Abbadiek sortu zituen poesia bultzatzeko lebia-

ketak ziren nahiz eta, aldi berean, oso gertaera aproposak bilakatu obiturak eta beste herri-manifestazioak plazaratzeko eta ezagutzera emateko.

Poesia sariketa jaien gunea izan arren, borren inguruan beste txapelketa eta froga ezberdinak antolatuko dira, ala nola euskal dantzak, pilota txapelketak, txistulariak, etab.

Horrez gain azpimarratu behar da 1876tik aurrera, gerra galdu ondoren, Euskal Jaiek kutsu berri bat hartuko dutela non mugimendu ideologikoa, kulturala eta errebindikatzaila nagusi izango den.

Lehendabizi Urruñan ospatu ziren 1853an. 1879rarte urtero herri ezberdin batean ospatzen ziren arren, Elizondoko jaiekin batera, beste herri batzuetan ere ospatu ziren bala nola 1980 Donostian, Beran, Maulen, etab.

Abbadie 1897an hil zen baina bere alargunak, Virginia Vicenta de Saint-Bonnetek, senarrak hasitako lana jarraitu zuen. Honen helburua Euskal Jaiak eta Euskal mugimendua zazpi probintzietara zabaltzea zen eta bere dirutik ordaindu zituen Aramaioko Lore Jokoak "Zazpirak bat" lemapean sortutako gastu eta sariak.

Aramaioko jaialdia R.M.Azkue euskaltzale ospetsuak antolatu zituen, Abbadie-ren emazteak berari eman baitzion enkargua.

"Bere alargunak, gure albistari onen Artezkariaren bidez, bete gura izan dau senarrak al izan ez ebana, Aramaiona-ko ibar ederra onetarako aukeratuaz" (Euskalzalea)".

Aramaionako Udalbatzak gogo onez hartu zuen ideia eta bi eguneko jaiak antolatzeko asmoz komisio bat izendatu zuen.

Betebehar honetan hainbat pauso eman ziren eta hauen berri jakiteko garaiko Udalbatzaren bilkura arruntan aktak aztertuko ditugu.

Aurkitutako ohar batzuei esker badakigu Aramaioko komisarioak Arrasateko Udalarari kiosko bat eskatu ziola. Kiosko

hau Arrasaten 1896an ospatutako "Euskal Jai"-etan erabilitako kioskoa zen (Gipuzkoako arkitektoa zen Etxabe jaunak asmatutakoa eta desmuntakorra zena).(...)

Jaiak neurri batean finantzatzeko, eta orduan obizkoa zen bezala, egun horietako ardo kontsumo zamatzea pentsatu zuten, baina Gasteizen ez zieten onartu. Jaien gastu orokorra, nahiz eta hasiera batean baxuagoa izan, 1.994,30 pezetakoa izan zen. Hau oso zifra altua da konparatzen badugu Aramaioko Ospitalak gastatzen duenarekin (30 pzt. gehiago) urte osorako. Besteak beste, urte hortako Deuna Martin jaietan 329,30 pzt. gastau ziren, zezenaren gastua ere kontutan izanik.

Hau nabikoa da ulertzeko zer nolako garrantzia eman zieten jai hauei herrian eta inguruetan, eta baita ere zelako prestakuntzak egiten ziren garbitzen, ormak zuritzen eta erakuntza publikoak nahiz pribatuak apaintzen". (21-22. orr.)

Aldizkari berean, 15. orrialdean Iñaki Nafarrate Kortabarria Aramaioko alkateak eginiko sarreran, beste honako hau bere irakurri daikegu:

"Lore jokoan helburu nagusia jai-giroa egiteko herriko moldeak erabiltzea zen; borregatik antolatzen ziren probak eta demak: ibiltarienak, danbolinjolle eta albokariarenak, bertsolari eta olerkariarenak, gorulariarenak, abere-demak, ..

Baina horrez gain, baziren ere jende haiek abertzaletasuna agertzeko eta euskal aberriaren alde azaltzeko modua. Areago, jasota dago nonbait Madrilgo Diputatuen Kongresuan hemengo diputaturen batek esan omen zuela lore jokoak antolatatu ez izanaren arrazoiak euskaldunen abertzaletasuna gainbeheran etorri izana zela. Gogoan izan euskal foruak bigarren guda karlistaren ostean, 1878. urtean abolitu zirela".

Ikusten denez, bada, laburbilduz lau ziran Lore Jokoan helburuak:

- 1) Poesia bultzatzea (helburu nagusia).
- 2) Herrien arteko hartuemonak indartzea.
- 3) Herritarren arteko loturak sendotzea.
- 4) Euskal Herri bakarra ("Zazpirak bat") agerian agertzea.

Ezaguna dogu, baita bere, orain dala mendebete Aramaion egin ziran Lore Jokoetako egitaraua. Bertan lekurik garrantzitsuena meza nagusiak eta olerkiek euki arren, beste hainbat egintza bere ageri jakuz. Horrela lotu zituen herritarrek parte hartzerakoan eguneroko bizitzako ekintzak eta goragoak.

Orduko eta aurtengo egitarauak jaso gura izan ditut eta alkarren ondoan aurkeztu bien arteko bardintasunak eta aldeak begirada bakarrean argiago ikusteko.

1999ko Foru Jokoak (Irailen zehar)

Aitatu barri ditugun Lore Jokoak, ehun urte igaro ostean, barriro ospatu dira aurtengo iralean Aramaion. Oraingoan, egintzak egun bitan batuta egin beharrean, hilabete osoan zehar banatuta egin dira.

Ospatzeko modua bere hainbatean aldatu da, interesguneak eta bizimodua bera bere aldatuak ditugun legez. Oraingoan beste modu batera eratu izan dira. Halan da bere, udalak mendeurrena ospatzea erabaki ebanean, orduko asmo berbera, hau da, euskarari bultzada bat emotea eukala uste dot.

Komunikabideetan bere oihartzun handia izan dabe. Zer esanik ez, orduan izan eben oihartzuna baino askozaz handiagoa. Aurrerantzean bere izango dau oihartzunik jaiei buruzko bideoa gertatu eta zabaltzen dabenean.

1899ko LORE JOKOAK

Lehen egunean (irailak 10):Goizez:

- 8etan:** Abelgorri ta zurdabereen batzaldi ta erakusketa
9,30etan: Lasterkarien arinketa
10etan: Zangolarien batzaldia
10,30etan: Albokarien batzaldia
11etan: Bertsolarien batzaldia

Arratsaldez:

- 3,30etan:** Txistularien batzaldia
4,30etan: Gorularien batzaldia
5etan: Pedarduen batzaldia
4,30etan: Aurrekularien batzaldia

Bigarren egunean (irailak 11):Goizez:

- 8etan:** Ezpata-dantzarien batzaldia
10etan: Meza Nagusia

Meza ostean: aurrekulariak txistulari sarituen laguntzaz dantzaldia.

Arratsaldez:

Elizkizunaren ostean: ezpatadantzari sarituen dantzaldia.

Jaiak amaitzeko: bertso-lanen sariak banatzea.

Oharrak: Ez zen pilota partidurik izan ez zegoelako pilotalekurik

-"Ari-topeka, idi-tema edo indarketan antzarrai kokota kentze ta zezenketa ta beste erdal-jolas gogor odoltsurik ezta iaialdi onetan ikusiko, ez bakarrik Abbadie zan iaunaren alargunaren aginduz, baita bere iaialdi onetan esku luze edo laburra dauken guztion gogoz". (Azkuek)

1999ko LORE JOKOAK

Irailak 4, zapatua

18:00.-Arabako Arditxakur Txapelketa

Irailak 10, barikua

20:00.- *Poesiaren kontra, poesiaren alde* errezitaldia

Irailak 11, zapatua: Txistularien eguna, goizez eta arratsaldez

Irailak 18, zapatua: Bertsolari gazteen kontzentrazioa (goiz-arratsaldez)

22:00.- Bertsosaioa, pilotalekuan

00:00.- Bertso zahar eta berrien kantaldi-karaokea Iturrieta sagardotegian

Irailak 19, Domeka: Bertsolarien ibilaldia auzoetan, bazkaria eta agurra

Irailak 24, barikua: Euskaltzaindiaren hileroko batzarra egun osoz

Irailak 25, zapatua: Euskaltzaindiaren IV. Jagon Jardunaldiak goizez

Irailak 26, domeka

12:00.- *Meza:* Bizente Gokoetxeak 1899an konposatutako meza

13:00.- *Dantza taldearen saioa* elizako atarian.

13:00.- Hainbat aramaioar "*Herriko Seme Kuttun*" izen-datzea udaletxeko batzar aretoan. Oroigarriak banatzea.

14:30.- *Bazkari berrikoa*, kiroldegian

17:00.- Aramaioko *trikilari*en emanaldia

Bertsolariak: Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Milan Telleria

18:00.- "*KULKI*" *haur parkea:* Zankoak, trontzalariak, jokoak...

Urriak 2, zapatua

22:30.- 1. mailako pilota partidu profesionalak.

Deia egunkarian lanean diharduen Mikel Atxaga izan dogu zerik ederrenak eskaini deuskuzana. Maitasun eta begirune handiz zabaldu gura izan dau gure herriaren barri. Eskerrak emon gura deusodaz eta bide batez berak idatzitako atal batzuk hona ekarri, danon atseginerako:

"Erdarak ez du Araba erabat jaterik izan. Mendiak, ibaiak, herriak, muinoak, baranak, arabarren abizenak euskaraz mintzo zaizkigu gaztelania aspaldi gailendutako tokietan ere. Erabiltzen duten gaztelanian ere euskarazko hitz bat baino gehiago sartzen dute tartean. Baina euskarak gotorleku bat ere izan du Araban: Aramaio.

Euskara entzungo dut igandean, Pedro Pujana oletarrak dioenez, "Euskalerra guztiko -Hegoaldeko zein Ifarraldeko-udalerrietatik euskaraz gehien mintzatzen dena: Aramaio, %84,94 biztunakaz" (Deia, 99/9/24)

"Bizitza osoa euskara lantzen, ikertzen, idazten eta sustatzen eman duten aramaioar ospetsuak oboeratuko dira egunotan, gainera.

Aramaioko historia, obiturak, euskara, musika eta abar arakatu dituzte. Eta hortik abiatu zabaldu du bakoitzak bere alorra, norbera bere txokoan goxo geratu gabe. Sabin Salaberriren musikazaletasunak Aramaioko kantua eta doinuak ditu oinarri. Jesus Mari Elejalderen historiazaletasunak bailara horretako gertaerak eta gorabeherak.

Beren laneko tresna euskara izan dutenen artean ere Aramaio izan dute oinarri. Pedro Pujanak, besteak beste, "Oletako euskal aditza" ikertu du. Patxi Uribarrenek, berriz, "Aramaioko toponimia". Joxemari Velez de Mendizabalek, idazlan ugarien artean, "Pedro Ignacio de Barrutia".

Izan ere, Aramaion aspaldi hasi zen euskal baratzean fruituak ematen. 1682an jaio zen Barrutia. Arrasateko idazkari izan zen Aramaiar honek idatzi zuen euskarazko lehen antzerkia: "Gabonetako ikuskizuna".

Aramaiar bat hasi zen, Gabirel Jauregi karmeldarra, fisikako eta kimikako eskola liburuak euskaraz burutzen ikastoletarako eta euskal eskoletarako. Gerrak izkutarazi zituen 1935ean eta 1936an argitaratu zituen "Pisia" eta Kimia".
(Deia, 1999/9/23)

Horrelakoak entzuteak poz handia emoten deuskue, zer esanik ez, Aramaion jaiotakoei. Egia esan, ezer gutxi gaineratu deikiot guzti horri. Aitatu barri dogun guzti hori gogoan hartuz jarraituko dot, bada, aurtengo Lore Jokoetan izan genduzan ekintzen barri emoten.

Egitarauan agertzen den moduan egintza ugari izan ditugunez, garrantzi handiena daukeenak, hau da, egun nagusienean, irailaren 26an izandako ospakizunen barri jasoko dot batez bere.

Halan da bere gogoan hartzekoak dira, kultur arloan garrantzia izan dabene beste egintza batzuk bere. Esaterako, Euskaltzaindiak bertako udalean bi egunez egindako lan-bilerak, Euskal Herriko Bertsolari Eskolen kontzentrazioa eta bertso-saioak, "poesiaren alde, poesiaren kontra" olerki errezitaldia, Aramaioko Lore Jokoei buruzko *Lankidetzan bilduma* liburuxkaren aurkezpena, Sastiñan irailean zehar ikusi ahal izan dan erakusketa, amaioarrok idatzitako liburuak, pintatutako koadroak, argazki zaharrak, eta bertako hainbat eta hainbat idazki zahar batu izan dituen...

Dana dala, esan dan legez, irailaren 26an, igandez egin ziran ospakizun nagusienak. Irailaren azken igande hori urre gorritzko letraz idatzita geratuko da Aramaioko udalaren historian. Nik, egun horretako hiru egintza esanguratsuenak jasoko ditut hurrengo lerroetan:

A) MEZA NAGUSIA.

Egitarauan ageri dan legez, igandeko 12etan izan genduan Bizente Goikoetxe musikalaria 1899ko Lore Jokoetarako ida-

tzi eta orduan arazo batzuen erruz kantatu ez zan meza. Honetaz hau irakurtzen dogu lehen aitatu dogun liburuxkan:

"Orain dela mende bat, Bizente Goikoetxea haraneko musikariak ospakizun horretarako meza bat konposatu zuen. Azpeitiko eta Gasteizko abesbatzek kantatu behar zutena, baina garaiko arrazoiak direla-eta, arrazoi politikoak besteak beste, ezinezkoa izan zen estrainaldia egitea. Horregatik, iaz Aramaioko Udalak Lore Jokoen mendeurrena ospatzeko erabakia hartu zuenean, haraneko beste musikari bati, Sabin Salaberriri, arduratu zitzaion meza borren prestaketa, Aramaioko Bizente Goikoetxea abesbatzak, behar bezala lagundurik, kantatzerik izan dezan."(Lankidetzan bilduma, 15. orr.)

Ospakizun zoragarria izan zan alkar-meza nagusia. Eleiza jendez gainezka, eleizpean bere lekurik ez egoela. Hainbat taldek parte hartu eben abesterakoan: Aramaioko "*Bizente Goikoetxea*" koraak, Gasteizko "*Samaniego*" koralak, Gasteizko Kontserbatorioko "*Carmelo Bernaola*" ikasle orkestrak, zuzendari lanetan Sabin Salabarra jaunak jardunez. Jendetza handiaren aurrean hurrengo abestiak abestu zituen.

Brandenburgoko sinfonia.....J.S.Batx
Kirie: "Sol nagusian Meza" (Agerpena).....B. Goikoetxea
Gloria: "Sol nagusian Meza" (Agerpena)B. Goikoetxea
Sanctus: Birjina Garbiarengorapenerako Meza ..B. Goikoetxea
Agnus Dei: Birjina Garbiaren gorapenerako Meza .B. Goikoetxea
"Itx ruf zu dir" koralaJ.S.Batx
Kristo nagusi.....J. Valdes Goikoetxea

Txalo beroak jaso zituen amaieran musikari eta abeslariak. Halako txaloak eta gehiago merezi zituen talde-lanean urtean zehar gogaitu barik gertatzen egindako halako ahalegin handiek.

Meza ostean, eleizaren aurrealdean herriko dantzarien saioa izan genduan eta, ostean, danok batera udalera, bertako egin-tza nagusira.



B) UDALEKO OSPAKIZUN NAGUSIA:

Bertan izan zan Lore Jokoak gogora ekartzeko eta mendeurrena ospatzeko egintza nagusia. Egintzak berak honako atalok izan zituan: kanpotik etorritako agintari eta ordezkariak agurtzea eta euron erantzun-berbak, herriko "seme-kutun" izendatutakoei udalaren urrezko intsignia eta gomutagarriak banatzea, eta bertara etorrita guztiek Arrese ta Beitiaren ahapaldi bat abestuz euskarari eusteko asmo sendoa agertzea.

Alkake jaunak ospatzen genduan jaiaren laburpena egin euskun:
"Egun on, jaun-andreok.

Lehenengo eta behin, eskerrik asko guztioi etortzeagatik: agintariei, gonbidatuei, senideei eta hemen bildu zareten guztioi.

Barkatuko duzue, baina bilkura-areto hau txikia da eta, gaurkoa bezalako ospakizun handietan, ezin ditu hartu barruan egon nahi duten guztiak. Megafonia bidez dena entzungo duzue udaletxe inguruan zaudetenok. Hala izango ote da. (Jarraian Erakundeetako ordezkarietara emon eutsen berbea. Hareek amaitutakoan, honela jarraitu eban:)

Benetan harro gaude Lore Jokoen mendeurrena, euskal jai eder hauen mendeurrena, Aramaion ospatzen ari garelako. Hainbat ekintza programatu dira iraileko asteburu guztietarako eta urriaren lehenengorako. Antoine D'Abbadiek filosofia jakin batekin sortu zituen Lore Jokoak; filosofia horri begira programatu dira gure ekintza guztiak. Jai hauek leben ere antolatu ziren Euskal Herriko zenbait udalerritan, gure nabia da mendeurrenak ere udalerrira horietan ospatzea. Horrela, bada, Zumaia eta Askaine dira hurrengoak, ban ospatu ziren-eta jai hauek 1900ean.

Benetan harro gaudela diogu, mendeurrenaren ospakizuneko ekintzarik nagusienetakoan izan berri garelako; horrelakoa izan da-eta gaurko meza nagusia, ederra bezain hunkigarria, parte hartu dutenei esker. Bizente Goikoetxeak idatzi zuen meza 1899ko Lore Jokoetarako, baina honelako edo halako arrazoiak zirela-eta, ezin izan zuten kantatu. Gaur bai, gaur abal izan da, Aramaioko beste seme-alaba batzuek egokitze-lana euren gain hartu eta bete egin dutelako.

Mendeurren hau ospatzeko jaietz gainera, badugu beste ospakizun bat ere, garrantzi handikoa dena: Aramaioko seme kutun izendatuko ditugu bertako lagun eta elkarte batzuk. Egin duten lana eta jardunagatik ezagunak dira bai gure herrian bai kanpoan. Literaturan, euskarari, musikan eta beste hainbat arlotan lan eskerga egin dute eta Aramaioren izena ezagutarazi eta zabaldu. Hori dela-eta, merezia dute sari garrantzitsu hau.

Denbora da udalbatzak hartua zuela erabaki hau; gaur beteko da.



Sinestuta nago badirela Aramaion sari hau merezi duten beste pertsona batzuk ere. Oraingo honetan bidea egiten hasi nahi dugu, merezi duten beste lagun horiek ere, aurrerantzean, omenaldi hau jasotzeko aukera izan dezaten.

Gaur ez dugu gure artean Aramaioko seme kutun den Pedro Pujana jauna. Osasunez makal dabil eta ezin izan du etorri. Gogora ekarri nahi dut gure Pedro adeitasunez eta bihotzez. Hurrengo egunen batean eramango dizkiogu Joxe Mari Abarrategi, Udaleko Kultura arduradunak eta biok beste omenduek gaur jasoko dituzten oparitxoak

Abalik eta laburren izatearen eta ez zaitezten nekatu, omenduei opariak banatzen hasiko gara. Kulturako zinego-

tziak euretariko bakoitzaren merezimenduak iragarriko ditu eta nik opariak eman. Hauek dira: beren-beregi omenaldi bonetarako diseinatutako eskultura, Udalbatzaren erabakiaren oroitzapenezko plaka eta Aramaioko intsignia, urrezkoa. Omenduek, nabi badute, hemen bildutakoei hitz batzuk esateko aukera dute”.

Jarraian, Joxe Mari Abarrati, Kulturako zinegotzi jaunak banan-banan omendu bakoitzaren datu biografikoak eta merezimenduak irakurri ahala alkate jaunak intsignia eta opariak eskaini eutsezan, bakoitzari berba egiteko aukera emonez. Hurrengoak dira labur esanda sarituen datu biografikoak eta merezimenduak:

Pedro Pujana Agirregabiria abade jauna, Aramaioko Oleta auzoan 1915-06-29an jaioa, 1979an euskaltzain urgazle eta 1995ean euskaltzain ohorezko (1995) izendatua. Besterik beste bizkaierako aditzaren eta batez bere, Oletako aditzaren ikertzailea (*Euskal aditza, bizkera*, 1970, “*Aitortu... zer dalanta?*”, 1972, “*Oletako euskal aditza*”, 1979; “*Bizkaiko forua*”(1981) liburuaren itzultzailea).

Sabin Salaberri Urzelai jauna, Aramaioko Ibarra auzoan 1934-08-20an jaioa; musika konposagile eta zuzendari ospetsua. Hainbat musika talderen sortzailea. Hainbat musika lan (Entzunenen artean “*Seis canciones vascas*”, “*Sei euskal abesti*”, “*Tres cantos de Navidad*” argitaratu dituena. Gasteizko Musika Kontserbatorioko irakasle, ikasketaburu eta zuzendari izandakoa. Bizente Goikoetxearen “Meza” Lore Jokoetarako egokitu dauena.

Jesus Mari Elejalde Plazaola abade jauna, Aramaioko Azkoaga auzoan 1935-03-07an jaioa; historiazale eta ikertzaile sutsua. Aramaiori buruzko hainbat liburu eta idatzi (“*Ermitas i caminos del Valle de Aramaiona*”, 1986; “*Aramaioko udal-txea*”, 1988; “*Aier i hoi del valle de Aramaiona*”, 1989) argitaratu dituena, eta bertako eleiza eta ermitak konpontzen izugarritzko lana egindakoa.

Patxi Uribarren Leturiaga karmeldarra, Aramaioko Etxaguenen 1942-10-31n jaioa. Euskaltzain urgazlea.

Lizentziaturako tesia "Aramaioko toponimiari buruz" egindakoa. Bizkaiko Foru Aldundiko itzultzailea. Bizitzan zehar euskara bultzatzen, batez bere adinekoen artean jardundakoa. Aipagarriak dira Aramaioko Etxeguenen (1977-1984) 500 ikasle inguruk parte hartuz antolatu zituen goi mailako ikastaro trinkoak. Ezaguna da, era berean, euskal hiztegi gintzan, "Bostak bat" taldekide izanik *Adorez* sortan 8 hiztegi argitaratu dituela. Idazlanik gehienak "*Karmel*" aldizkarian eta "*Karmel Sortan*" kaleratu ditu.

Jose Mari Velez de Mendizabal jauna, Aramaioko Ibarra auzoan 1949-09-27an jaioa. Euskaltzain urgazlea eta Euskerriaren Adiskideen Elkarteko kidea. Eusko Ikaskuntzako Gerentea. Kontaezinak dira honen ikerlanak eta literatur-lanak. Besterik beste, *Serbero Altube* (1979), *Iokin Zaitegi* (1981), *Pedro Ignacio de Barrutia* (1984), *Zeu zara*, *Carmen* (1984), *Euskal Idazleen Katalogoa* (1986), *Nire aitaren etxea* (1987), *Amuarrantza* (1988), *Sixties* (1990), *Iehuda* (1992), *Nire haurtzaroko Arrasate* (1995), *Moskuko gereziak* (1996), *Gerardo Lopez de Guereñu* (1996), *Gaizka Barandiaran* (1999), *Samurai berria* (1998), *Mende laurdenean* (1999), eta hainbat idazlan aldizkari eta egunkarietan zehar.

Bizente Goikoetxea korua: Aramaioko koru honi bere, aspalditik egin izan dauan lana aurtortu eta eskertu gura izan eutson herriak insignia eta opariak eskainiz. Asko dira abesbatza honek hor eta han eskaini dituen kantaldiak (Tososako Topaketetan, 1984; Arabako Nazioarteko Abesbatzen Asteetan, 1985, 1986, 1987; Gipuzkoako eta Kataluniako koruekin trukean; ETBk emititutako hainbat mezatan; "Euskal musikagileak" programarako grabazioetan,...) Guzti hori, jakina, herrian bertan jai handietan eskainitako meza nagusiak eta hiletetan emondako zerbitzu ugariak ahaztu barik)

Pedro Pujana jauna izan ezik beste danak jaso zituen euren opariak ekintza horretan, argazkian ageri dan legez. Alkate jaunak hartu eban Pedro Pujanarena, beste egun batean berari eroateko asmoz. Urriaren 29an Euskaltzaindiak Bilboko egoitza nagusian egindako batzarraldian bete eban agindutakoa.

Oparien eskaintza egin ostean, udal aretoan batutako guztiok batera, 1899ko Lore Jokoetan lehen saria lortu eban Felipe Arrese ta Beitiak egindako olerkiaren azken ahapaldia abestu genduan, aurrerantzean bere euskarari eusteko berbea emonaz. Negar-ttanttak bere ageri ziran diz-diz hainbaten begietan.



Omenduak alkatearekin batera opariak aurrean dituela. Plakako berbak:

Aramaioko udala

*Aramaioko udalbatzak 1998ko urriaren 14an
honako hau erabaki zuen*

.....(Bakoitzaren izen-deiturak).....

Aramaioko seme kutuna izendatzea

*Lore Jokoen mendeurrenaren ospakizunarekin eta egun
borretarako Bizente Goikoetxeak egin zuen meza
berreskuratzearekin batera erabaki hau gauzatu dugu.*

Aramaion, 1994ko irailaren 26an

C) HERRI BAZKARIA:

Jaialdiari amaiera emoteko, bazkaria izan genduan kiroldegian. Harritzekoa bada bere, esan beharra dago seihun pertsonatik gora batu ginala bertan. Honelako alkartasunezko egintzak garrantzi handia izaten dauelako herritarren artean giro ona sortzeko eskaini gura izan deutsodaz honako lerroak. Arazo txiki batzuk izan baziran bere, ondo gertatuta egon zala esan behar. Bitartean, bertsolarien eta Aramaioko trikitilarien eskolako emonaldiak bere izan genduzan.

Bien bitartean, pilotalekutik kanpo, alboko jolaslekuan ume-entzako jolasak eta jokoak: zankoak, trontzalariak, toka jokoak, laixak, zaku-karrerak, boloak, etab. Horrela emon jakon amaiera Lore Jokoei *1. mailako pilota partidua*, hurrengo zatipatuan, urriaren 2an izan bazan ere.

Jendetza galanta eta herritarren partehartze handia izan zala gogoratu eta guzti honek bertako euskarari bultzada emongo deutsola itxaronez amaitu gura ditut lerro honeek. Amaitzeko, Felipe Arrese ta Beitia Otxandioko okerkariak 1899ko Lore Jokoean aurkeztutako "*Aramaiori goratasuna*" olerkiari egin gura deutsot lekua hurrengo lerroetan, lehiaketan lehen saria lortzeaz gainera, benetan oso ederra dalako.

Patxi Uribarren

Aramaiori goratasuna

“Anboto, Udalatx eta Murugaiñ
 Goiok gorago eregi,
 Ta begiratu zuek gordetan
 Dozuen ibar oneri;
 Euskaldun lorategi eder bat
 Beronek badau irudi
 ¿Bioletaren izena ondo
 Eletorkio danori?

Kantauko dot Nik ibar au dala
 Arabar danen ondrea,
 Kantauko dot nik berau gaur dala
 Euskaldun bioletea;
 Kantauko dot nik dala pitxi bat
 Motzak ezaindu bagea,
 Euskal-usaiña baiño besterik
 Iauten etxakon lorea

Bioletea izanik berez
 Be-zale umil benetan,
 Bedar artean lotsaz legetxe
 Dana, al badau gordetan,
 Bertsolariak, baiña alan bere
 Umiltasuna goietan
 ¿Eztabe iarten euren kantakaz
 Lekurik ederrenetan?

Kantauko dot bai kantau gizaldi
 Asko ein arren munduan
 Garbia dala oituretan
 Bertako erreken moduan,
 Mendi ederrez inguraturik
 Ementxe bakar lekuan,
 Lan egunez da gabez lo einda
 Euskera Amaren altsuan

Ta bioletea be-zaletxo bat
 Ibar au mendiz gorderik
 Irudituten baiat, nik ¿zelan
 Itxi gaur iazo bagarik?
 ¿Zelan Araban berau izanda
 Euskaldun utsa bakarrik,
 Bertan lorarik ederren dala,
 Eztot kantauko emen nik?

Onek dirudi Euskerearen
 Alaba berarizkua
 Pitxiletakaz dabena iarten
 Txukun txukunik burua;
 Dalako berau milla abia
 Zuri zurien lekua,
 Eta ainbeste santutegien
 Esparru eder dantsua.

Toki autua benetan zara
Ainbeste eleizaz iantzia,
Ibar malats bat zu Aramaio
Etxalde ederrez iosita,
Murugaiñdik nik zuri begira
Kerizpetxoan iarrita,
Zenbat alditan esan ete dot
¿Zu zareala polita?

Damugarria litzake baiña
Gozetan dozun gloria,
Ikusitea dana galduta
Zu buruz beera iarria;
Damugarria izanik zu gaur
Euskaldun bizi tokia,
Ama edaten gero ikustea
Umeak erdal titia.

Damugarria litzake bada
Osasunagaz Euskera
Zugan gaur bizi eginda bihar
Bialdutea lurpera;
Baiña, mendiok zutik badagoz
Lotsa bagako erdera,
¿Azartuko da!o! Aramaio
Zure izketan illtera?

Orretariko arerio ta
Etsai ain gerralaria
Sartu eztedin inguru inguru
Iarri egizu esia;
Orren azpira makurtu baiño
Lenago erabagia,
Artu egizu, zein azpiratu
Iokatuteko bizia.

Zure erripak, zure aldatsak
Zure tontorrek euskeraz
Zainduten dabez euren izenak
Aldatu бага bestegaz;
Eta iñozko alditan deitu
Egin baiño len erdaraz,
¿Jausi zaitetze txuntxurrok danok
Arroetan tuterraz!!!

Ez orrenbeste, ez Aramaio
Larritutea euskaldun,
Nai dozulako, euskal-iaiokaz
Eiten zaitue ezagun;
Kantau daikezu arabar izan
Arren, enaz ni erdaldun,
Ze odol dodan, beti euskaraz
Aurtortuko dot edonun

Oraindik zure iturriok nai
Dabe iarraitu batera
Lorik ein бага kantetan beti
"Bizi bekigu euskera"
Baita mendiok berdez nai dabe
Iantzi urtero aurrera,
Igartu eta esan eztedin
Egin dirala Gaztela.

Kantau begie "Anbotok zarden
Gordetan badau burua,
Baita Aramaio ondo zainduko
Dau Euskera Ama atsua,
Atsua izan arren Euskera
Dalako garbi gozua
Ez dakiana iñoz loituten
Iaunaren izen Santua"

¿O! Ama maite Euskera zarra,
 Iaungoikoaren izena,
 Mundu guztian ondo esaten
 Zu zara iakitunena,
 Zergatik goian bizi dalako
 Iabea guztioena,
 Beraz arentzat ¿non da izenik
 euskalduna duin ederra?

Bene bentan beretzako da
 Egokien Iaungoikua
 Bere Erreiñu berarizkoa
 Zergatik iakon Zerua;
 Eta Zerua izarrak baiño
 Dalako goragokua
 ¿Nondik ta nora deitu eikeon
 Euskerak iaun bat bekua?

Dalako goiko iauna deitsagu
 Iaungoikoa emen deituten,
 Beste izenik baiño gehiago
 Berak gu gaitu poztuten;
 Berak Dios-ek baiño gehiago
 Biotza deusku samurtzen
 Samurtasunez euskera bestek
 Estabelako bardintzen.

Argizagia bera baiño da
 Euskera epatzagoa
 Eztia bera dan baiño bere
 Gozo ta eztiagoa,
 Dontsua ume Ama daukana
 Euskaldun garbi osoa
 Titiaz naste edan dagion
 Berbeta iaungoikozkoa.

Emen alantxe orain arte da
 Oiñetik oiñera edan,
 Euskera utsik, ta beraugaitik
 Bizi da bizi dan eran;
 Zorioneko iaio ziranak
 Eta ill euren Euskeran,
 Eztabe orain damu izango
 Ez bizi izana Gaztelan.

Ainbeste milla urtetan eben
 Emen alantxe iarraitu,
 Eta gu bere bide erdian
 Ezkaitezen gaur geratu,
 Euskal azia ereiten arren
 Danok gaitezen dendatu,
 Eta euskaldun semeak iaio
 Egingo dira ziertu.

Bai, Aramaio, gura badozu
 Izan zorionekua,
 Maitetu zeure guraso zarren
 Berbeta garbi gozua;
 Gordeizu arren ill arteraiño
 Euskera bedeinkatua,
 Nok dirudian Paradisua
 Zerutik iatsitakua.